

22-23

Lleida Palau d'Anglesola

25,7 Kms

Zeure burua preziatuz hasten bazara, erraz eskatu ahal izango diezu gainerakoei ere hori bera.

Etapa 22

Harrera-Tokiak

Datu Interesgarriak

Ignazioaren arrastoak

Iruzkinak

Etapa 22

Hiritik irteteko Segre ibaiari jarraituko diogu. Ibaiko pasealekutik oinez, Segre ezkerredera dugula, trenbidearen zubi azpitik eta Pardinyes zubiaren azpitik pasako gara. Zubia igarota, eskailera batzuk aurkituko ditugu kalearen mailara iristeko. Gezi laranja batzuek eta habe adierazleak “bide zuzenean goazela” adieraziko digute. Segre ibaiaren paraleloan jarraituko dugu Granyenako bide zaharrean zehar. 90º biratuko gara eskuinera eta ubidea gurutzatu ondoren, berriro ezkerredera. Gure ezkerredera dauden ibaiaren uhateetara gerturatuko gara. 500 metroz zuzen jarraituko dugu eta trenbidea gurutzatuko dugu. Industriaren etorbidera iritsiko gara eta ezkerredera hartuko dugu Enginyer Mies kalera iritsi arte, honek eskuinaldera eramango gaitu. Beste 750 inguru ibiliko gara eta errepeidearen gainetik zubi bat igaro ondoren, industrialdearen irteeran aurkituko gara, eta berriro labore-sailez inguratuta.

Estamos en el Camino de Alcoletge. Seguimos la carretera, y pasamos junto a una cantera de piedra y arena. Seguimos de frente, sin tomar ninguna desviación. Bifurcación de nuestro camino: tomamos a la derecha. Llegamos a un puente para cruzar la autovía A-2. Una vez atravesado el puente, giramos a nuestra derecha en ángulo recto y seguimos unos 200 metros hasta encontrar el camino de tierra

que gira a nuestra izquierda. Lo tomamos y seguimos de frente.

Gure eskuinera nekazaritzako nabe luze batzuk ikusiko ditugu. Argindar dorre batera iritsitakoan, gure lurrezko bidea beste bide batera iristen da, baina guk aurrera jarraituko dugu. Bide batek gurutzatuko gaitu. Aurrera jarraituko dugu, beste asfaltatutako bide batera iritsi arte, eskuinera hartuko dugu. Gure bideak ezkerredera jarraitzen du. Bidegurutze batera iritsiko gara: eskuinekoa hartuko dugu.

El camino termina en la calle Vilanova de la Barca: a 100 metros, a nuestra derecha, están las vías del tren. Giramos a la derecha para ir a cruzar las vías. Seguimos recto por la calle de la Mina, atravesando en diagonal la plaza. Giramos a la derecha por la calle de Pau Casals y luego a la izquierda por la calle Urgell. Llegamos al final de la calle y nos encontramos con la carretera N-II. La iglesia de San Miquel está a nuestra derecha y seguimos recto. Junto al restaurante Bòria se encuentra la fuente pública.

Al llegar a una rotonda, la cruzamos todo recto y entramos en un camino de tierra, dejando la carretera asfaltada a nuestra derecha. En la primera y segunda bifurcación tomamos a la izquierda las dos veces y nos acercamos a la vía del tren. Cruzamos la vía y seguimos recto acercándonos a la autovía A-2. Nos unimos a un camino hacia la derecha que va paralelo a la autovía y nos dirige hacia una granja agrícola (El Molinet) y a un puente para superar la A-2.

Asfaltatutako bideak A-2 autobidearen gaineko zubi batera eramango gaitu. Ez dugu gurutzatuko, baizik eta zuzen jarraituko dugu A2rekin paraleloan ezkerretik doan mendi- bidetik. Kilometro batera bidea utzi eta eskumara hasten den bat hartuko dugu, etxe multzo batera eta baserri batera zuzentzen dena. A-2tik aldendu eta gero gerturatuko gara, eta azkenik zubia zeharkatuko dugu. Zubia pasatuta, eskumara jo eta lehenengo bidean eskumara ere zuzenduko gara. Bidegurutzean eskumara berriro. Zuzen jarraituko dugu beti eguzki- energiako zentralera garamatzan bidetik. Beti zuzen eguzki- plakak ezkerredera utzita eta hurrengo bidegurutzean eskumara joko dugu. Metro gutxian ezkerredera giratu eta Urgelleko ubidera helduko gara. Gurutzatu eta zuzen jarraitu. Hurrengo bidegurutzean ezkerredera jo eta El Palau d'Anglesolara heltzen ari gara. Beti aurrera, biribilgune batera iritsiko gara, gure ezkerredera angelu txiki bat eginda gurutzatuko dugu eta El Palau d'Anglesolan egongo gara. San Roc Etorbidetik sartuko gara. Hau Font kale bihurtuko da eta zuzenean Plaza Nagusira eramango

gaitu.

Harrera-Tokiak

ALCOLETGE

Refugio de Peregrinos . c/ Mayor 19. Tel: 973 196 011

BELL.LLOC D´URGELL

Ayuntamiento . Plaza Mayor, s/n Tel: 973 560 100.

Taxi Miquel Bosch . Tel: 636 213 070

PALAU D´ANGLESOLA

Ayuntamiento . Tel: 973 601 314.

Eurotaxi Albert . Tel: 619 605 805

Pensión Sant Antoni** . C/ Sant Antoni, 7. Tel: 973 602 158.

Refugio Peregrinos . Amics del Camí, amics.del.cami@gmail.com Telf. 629 68 40 63 <http://amicsdelcami.elpalaudanglesola.cat/>

Datu Interesgarriak

BELL-LLOC D´URGELL: Herri txiki honek, jatetxea, supermerkatua, botika, osasun-etxea eta bankua eskaintzen ditu.

PALAU D´ANGLESOLA: 2.000 biztanleko herria, arabiarren jauregi batean du herriak bere jatorria, 1085 urtean gelditu zen kristauen esku. Gaztelu-jauregia XVII. mendean berritu zuten. Jatetxea, supermerkatua, botika, banketxea eta osasun-etxea daude.

Ignazioren arrastoak

Oharrak: Gogo-jardunetako "laugarren astean" animo alaia izango dugu, Jainkoaren Bizia osotasun osoan kontenplatuko baitugu, Jesusekin eta ikasleekin batera sentituko dugu azkeneko atea ireki dela eta orain ez dagoela betiereko askatasunerako eta zorionerako bidean geratuko gaituen ezer, Jainko maitasunean. Azkeneko astea graziaz eta argiz beteta biziko dugu. Lore txiki

bakoitza, txoriak, irribarrea, luzatutako eskua poz iturri ditugu. Ez dezagun ahaztu “sarrerako otoitza” kontenplazioan sartu aurretik eta egunean zehar. Gogoan izan dezagun amaierako elkarrizketa: Jesus berpiztuaren barne ezaguerara gerturatzen gara, betiko biziarekin dugun konpromisoa betetzen lagunduko digu. Otoitzaren amaierako elkarrizketan eta egunean zehar eztabaidatuko dugu gure “adiskidearekin”.

Eskaria: Dohain hau eskatuko diogu Aitari: Berpiztuaren eta garaipenezko Kristoren pozean sartzeko gai izan gaitezela. Jesusek lortu digun Bizi Betea kontenplatzeko gai izan gaitezela. Erabat poztu Kristorekin, Mariarekin eta bere ikasle guztiekin.

Hausnarketak: Berpizkundearen miraria kontenplazten jarraituko dugu gaur: Ikasleek egun asko behar izan zituzten Jesusen Bizi Osoaren esperientzia horretara iristeko. Maria Magdalenaren inguruan ibiliko gara, Jesus oso maite zuen emakume honengandik gertu. Bere larritasunean begiratuko diogu. Berak sentitzen duena sentitzen saiatuko gara, bizitza honetan zuen zentzu bakarra galdu duen honetan. Eta berarekin egongo gara aurkikuntzaren unean. Mundua berarekin batera poztu da. Senti ditzagun ikasleen beldurra eta errua, Jesus berpiztua elkartzen ziren ohiko tokira itzultzen zaienean. Goza dezagun Berpizkundearen mirariekin.

Jesus gure desesperazio pertsonalera dator gaur, unerik zailenak itxi ditugun areto ilunera. Gure heriotza guztiak sendatu eta biziz bete nahi gaitu. Jesusek ez du gure sufrimendua gehiago onartzen: Bera da bizia eta gure hilobitik irteteko eskatzen digu Berak. Entzun dezagun Jesusen ahotsa: irteteko esaten digu, Lazarori esan zion bezala. Ohartu gaitezela Bera gure ondoan doala oinez eta “esnatu zure heriotzatik... bizi bainaiz!” eskatzen digula.

Beti bezala, eszena harrigarri hauetan kokatzera gonbidatzen gaitu Ignaziok. Utz diezaiegun berpizkundearen historia ezagun hauei gugan garatzen eta jar gaitezen eszenan. Erabil ditzagun naturako edertasun guztiak poz sakonaren esperientzian laguntzeko. Ignaziok bere gogo-jardunak idatzi zituenean, Montserratera egin zuen erromesaldiko une alaiak gogora zitzakeen, ikusten zituen eta bizitzeko alaitasuna ematen zieten gauzak: laugarren aste honetan “garaiko argiaz edo ezaugarri atseginez baliatuko naiz, udako freskura freskagarriaz edo neguko eguzkiaz eta epeltasunaz, horrela nire Sortzaile eta Erosle Kristorengan poztuko bainaiz”.

Testuak:

Joan 20:11-18. Maria Magdalenarekin batera nire izena entzun eta pozez beterik erantzuten dut.

Joan 20: 19-23. Jesusen hamar kideek aretoan sentitzen dituzten beldurra, errua eta nahasmena ezagunak ditut. Denak sentitu ditut unereren batean. Berak maite duen eta etorri nahi duen tokietako bat da. Ongi etorria egin eta bere dohainak jasotzeko prestatzen naiz: bakea, alaitasuna, misioa, Bere espirituaren zain egonda eta bere errukia izanda.

Joan 11:17-44. Jesusek esan zuen: “Neu naiz biztuera eta bizia... Sinesten al duzu hau?” Jesusek deitu zion: “Lazaro, zatoz kanpora!” Lazarok entzun zuen heriotzatik bizira deitu ziola, lotuta egotetik libre izatera. Nire hilobiaren ertzean eseri eta nire heriotza txikiak eta nire askatasuna mugatzen ari den oro planteatuko ditut.

Amaierako elkarrizketa: gure barne erromesaldiko etapa honetan gure lagun eta adiskide Jesukristorekin ibiltzen ohitu gara eta adiskideek elkarrekin hitz egiten duten adinako askatasunez hitz egiten dugu elkarrekin. Barneko indarra eta grazia baldin badaukazu, eska iezaiozu bere ikurrinaren pean har zaitzala Jainkoaren Erreinua bere ondoan eraikitzeko. Amaitzeko, “Aita Gurea” esan.

Iruzkinak

Leave a Reply

Your email address will not be published. Required fields are marked *

Comment *

Name *

Email *

Website



Bizikletaz egiteko erraza

Lleida : Km 0.


Autopista: Km 7,2.

Bell-lloc: Km 15,6.


El Palau d'Anglesola: Km 25,7.

Bidea

Etapa eskema



Altimetria



Palau de Anglesolako eguraldian

[bidea ikustea wikiloc](#)

[gps-a deskargatzea](#)

[MapOut deskargatzea](#)

Galeria

Etapako Argazkiak


















































[aurreko etapa](#)

[hurrengo etapa](#)